# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroak 7**

**Vitoria-Gasteiz, 7 de noviembre de 2023**

**Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena**

# EUSKO JAURLARITZAK EUSKADIKO NEKAZARITZA ETA ELIKAGAIEN SEKTOREETAKO PROFESIONAL- ETA ENPRESA-ELKARTEEN LANA BABESTUKO DU 350.000 EUROKO ZUZKIDURAREKIN

- **ELKARTEAK laguntza-programak azterlanak eta prestakuntza-jarduerak, azokak eta elkarteen funtzionamenduaren ondoriozko gastuak finantzatzen ditu, xedeak bete ditzaten**
- **Laguntza horien onuradunak izan daitezke elkarte profesionalak eta Euskadiko nekazaritza eta elikagaien sektoreetako federazioak eta konfederazioak**

Eusko Jaurlaritzak gaurko bileran onartu du Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiaren agindua; agindu horrek ELKARTEAK laguntza-programaren 2023ko deialdia egin du, Euskadiko nekazaritza eta elikagaien sektoreko profesionalen eta enpresen elkarteontzako dena, zenbait azpisektore egituratzeko funtsezkoak direla uste baita, haien jarduerak sustatuko direlako.

Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten nekazaritzako eta elikagaien sektoreetako elkarteek eta profesionalen eta enpresen federazioek eska ditzakete laguntza horiek, sektore horien interesak defendatzen badituzte irabazi asmorik gabe.

Deialdi honetarako onartutako zuzkidura ekonomikoa 350.000 eurokoa izango da eta honela banatuko da:

– Elikagaien sektorerako: 100.000 euro.
– Nekazaritzaren sektorerako: 250.000 euro.

Diruz lagundu ahal izango dira elkartekideen interesak defendatze aldera agindutako eta aitortutako ordezkaritza-lanen ondoriozko gastuak; elkartearen xedeak behar bezala betetzea sustatzeko elkarteek egiten dituzten funtzionamendu-gastu arruntak; nekazaritza- eta elikagai-sektoreetako jardueren baldintzak eta baldintza sozioekonomikoak sustatu eta hobetzeko jarduera esperimentalen eta egindako azterlanen gastuak; eta azokak eta lehiaketan antolatzeko gastuak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdiaren agindua argitaratzen denetik hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko.

Erakunde eskatzaileek bide elektronikoa erabili beharko dute eskabideak aurkezteko. Laguntza izapidetzeko jarraibideen prozedura informazio-fitxa batean dago eta agindua argitaratu ondoren fitxa horretatik sartzen da eskura dauden eskabideen inprimakietara, honako esteka hauetan: Elikagaien sektorea: https://www.euskadi.eus/servicios/1083405 / Nekazaritza-sektorea: https://www.euskadi.eus/servicios/0113510

**Ekonomia eta Ogasuna**

## FINKATUZ FUNTSA 300 M €-KO KAPITALERA IRITSI DA, GAUR EUSKO JAURLARITZAK 40 M €-KO ZABALKUNTZA ONARTU ONDOREN

Finantzen Euskal Institutuak (FEIk) kudeatzen duen Finkatuz funtsa 300 M €-ra iritsiko da, Gobernu Kontseiluak gaur onartutako 40 M €-ko zuzkiduraren ondoren.

Zabalkuntza honi esker, bete egiten da Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan 300 M €-iritsi arte kapitala zabaltzen joateko duen konpromisoa.

Finkatuz funtsaren helburua da Euskadiko enpresa handiek kapitalean parte hartzea, enpresa horiek Euskadin errotuta jarrai dezaten eta trakzio-izaera eragin dezaten euskal produkzio-sare osoan. Enpresa horiek 100 milioi eurotik gorako fakturazio bolumena izan behar dute, eta gutxienez 50 enplegatu eduki. Krisian dauden enpresetan parte hartzea baztertuta dago.

Finkatuzentzat lehentasunezkotzat jotzen diren sektore estrategikoen artean daude: aeronautika, elikadura, automobilgintza, biozientziak, eduki digitalak, ekoindustriak, energia, makineria, produktu eta instalazio siderurgikoak, teknologia elektronikoak eta informaziokoak, garraioak, mugikortasuna eta logistika. Sektore horiek ez dute osatzen zerrenda itxi bat, denboran zehar aldatuz joan daitezke eta.

2021ean abian jarritako funts honek hiru enpresatan hartu ditu partaidetzak orain arte: ITP Aero, CAF eta Kaiku; 104 M €-ko inbertsioarekin.

Zuzkidura berri hau gauzatzeko, Gobernu Kontseiluak, 2023ko ekainaren 20an egindako bileran, 60 M €-ko ekarpena baimendu zuen, FEIren gizarte-funtsa handitzeko helburuarekin.

**Hezkuntza**

## HEZKUNTZA SAILAK 2,7 MILIOI EURO BIDERATU DITU HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMETARAKO

- **Hizkuntza indartzeko irakasleak kontratatzeko edo programak ezartzeko baliabide bibliografiko zein didaktikoak eskuratzeko gastuak ordaintzeko erabiliko dira laguntzak**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, 2023-2024 ikasturtean, 2,7 milioi euro bideratuko ditu itunpeko ikastetxeetan hizkuntza indartzeko programak gauzatzeko dirulaguntzetarako. Programa hauek honako ikasle hauei zuzenduta daude: gure hezkuntza-sistemara iritsi berriak izan eta Euskadiko hizkuntza ofizialak ez ezagutzeagatik komunikazio-zailtasun handiak izanik, hizkuntza indartzeko plan bat behar duten ikasleei. Ikasturte honetarako deialdia Gobernu Kontseiluaren gaurko bileran onartu da.

Laguntzen onuradun izango dira Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Oinarrizko Lanbide Heziketa ematen duten itunpeko ikastetxeak. Laguntza-deialdi honen xedea da programa horiek 2023-2024 ikasturtean egikaritzearen ondoriozko gastuak zein langile-gastuak finantzatzea.
Ikasle iritsi berritzat hartzen dira, 2022ko urtarrilaren 31tik unibertsitateaz kanpoko euskal hezkuntza-sisteman lehen aldiz matrikulatu diren ikasleak. Dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, halaber, ikasle horiek 6 urtetik gorakoak izan beharko dute eta gehienez 18 urte bete beharko dituzte 2023-2024 ikasturtean.

Dirulaguntza hauek jaso nahi dituzten ikastetxeek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute: ikastetxeak ezartzen duen hizkuntza-errefortzuko programaren deskribapena, programa horretan parte hartuko duten irakasle espezializatuak eta haien dedikazioaren ehunekoa, parte hartuko duten ikasleen kopurua eta programazio didaktikoa adierazita, jarduera didaktikoak eta ebaluazio-irizpideak barne.

Ondoko gastuak ordaintzeko erabiliko dira dirulaguntzak: irakasleak (hizkuntza indartzeko irakasleak) kontratatzeko edo metodologia berritzaileak ezartzeko behar diren baliabide bibliografikoak eta didaktikoak eskuratzeko.

Joan den 2022-2023 ikasturtean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak itunpeko 127 ikastetxetan garatutako era horretako programak lagundu ditu diruz deialdi honen bidez, eta 2.500 ikasle pasatxo izan zituzten zuzenean onuradun. Era berean, sare publikoan, Hezkuntza Sailak 285 ikastetxetan ezarri zituen hizkuntza indartzeko programak, eta 2.500 ikasletik gora izan ziren horien zuzeneko onuradun.

**Hezkuntza**

## 200.000 EURO DOKTORE IKERTZAILEEN MUGIKORTASUN-PROGRAMARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du doktore ikertzaileen mugikortasun-programarako dirulaguntzak arautzen dituen Agindua.

200.000 euroko diru-kopuruarekin, deialdi honek dirulaguntzak eskaintzen ditu ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko –dedikazio esklusiboarekin-, I+G+b-ko erakunde eta zentroetako ikertzaileen zein unibertsitate-irakasleen mugikortasun geografikoa sustatzeko eta, era horretan, haien gaitasunak eta ikerketa-taldeen lehiakortasuna hobetzeko helburuz.

Ikertzaileen mugikortasun-programa hau bi modalitatetan garatzen da:

- A modalitatea, ikertzaile seniorren mugikortasunerako, langile iraunkorrentzat (150.000 euro)
- B modalitatea, ikertzaile juniorren mugikortasunerako, langile ez-iraunkorrentzat (50.000 euro)

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente gisa ziurtaturiko entitateak. Euskaditik kanpo kokatutako ikerketa zentroetan egonaldiak egingo dituztenak, aldiz, laguntzen eskatzaile den entitatearekin lan-harremana duten ikertzaileak izango dira. Euskal ikertzaileak gehien bat mugitu izan diren ikerketa zentroak honako herrialde hauen egon ohi dira: Erresuma Batuan, Alemanian, Amerikako Estatu Batuetan, Australian, Kanadan, Suedian, Danimarkan edo Zeelanda Berrian, besteak beste. Ikertzaile horiek doktore izan beharko dute, eta gutxienik bi urteko antzinatasuna laguntza jasoko duen entitatean.

Kanpoko egonaldian, bertako ekipoaren lan-ildoan integratuta dagoen ikerketa-proiektu bat, edo trukeak eta maila handiko lotura zientifikoak ezartzera bideratutako beste jarduera batzuk egin beharko ditu ikertzaileak. Egonaldi hau 2024 urtean burutu beharko da, eta gutxienik bi hilabete eta gehienez sei hilabeteko iraupena izango du.

2023an 24 ikertzaile izan dira laguntza hauen onuradunak, aurreko deialdiaren bidez. Erresuma Batuan, Ameriketako Estatu Batuetan, Italian, Alemanian, Kanadan, Espainian, Zeelanda Berrian, Suedian, Herbehereetan, Ekuadorren, Singapurren eta Hegoafrikan egin dituzte egonaldiak.

Ikertzaileentzako mugikortasun-programak tresna egokia dira, ikerketa sustatzeko Hezkuntza Sailaren lan-ildoen baitan, Euskadiko komunitate zientifiko eta teknologikoa prestigio handiko ikertzaileekin harremanetan jar dadin, bai eta unibertsitateko irakasleen ezagutza zientifikoak eta teknikoak eguneratu eta hobetzeko ere.

**Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak**

## GOBERNUAK GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAN GIZARTE-ITUNAREN ARAUBIDEA ETA HITZARMENAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUA ONETSI DU

Gobernu Kontseiluak, Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, dekretu berri bat onetsi du gaur; haren helburua da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoko zerbitzuak hitzartzeko araubide orokorra eta bateratua arautzea. Zehazki, zentroetan plazak ekimen pribatuko entitateekin hitzartzea arautuko du dekretu horrek.

Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusten denez, itun-araubidea, zuzeneko kudeaketarekin, administrazio publikoen kontratazio-araudiaren esparruko zeharkako kudeaketarekin eta irabazi-asmorik gabeko entitateekiko hitzarmenekin batera, administrazio publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zerbitzuen prestazioa antolatzeko duten formuletako bat da.

Kontratazio Publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24 EB Zuzentarauak eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, zeinak transposizioa egiten baitu, askatasuna ematen diete estatu kide bakoitzari gizarte-zerbitzuen prestazioa eta interes orokorreko beste zerbitzu pertsonal batzuk antolatzeko, kontratu publikorik egin gabe, betiere gardentasuneko eta diskriminaziorik ezeko printzipioak betetzen badira.

Itun-araubideari soziala dela esaten zaio, gizartean esku hartzeko eremuari egiten baitio erreferentzia: gizarte-zerbitzuak, enplegura jotzeko sustapena eta gizarte- eta osasun-espazioko, gizarte- eta lan-espazioko, gizarte- eta hezkuntza-espazioko eta gizarte- eta auzibide-espazioko esku-hartzeak, besteak beste. Eta deialdi publikoaren prozedura batean oinarrituta antolatzen da; prozedura horren ondorioz, plazak hitzartu behar dira sartzeko eskakizunak betetzen dituzten eskabideak egin dituzten entitate guztiekin. Prozedura eta, zehazki, sartzeko eskakizunak Gizarte Zerbitzuen Legearen 7., 8. eta 9. artikuluek ezartzen dituzten printzipio eta Erkidegoko arreta-ereduarekin lotuta daude. Eta itun baten iraupena 8 urtera artekoa izan daiteke.

Beraz, tresna koherentea da Erkidegoko ereduarekin eta gizarte-zerbitzuetarako kalitateko Europako esparru boluntarioarekin eta interes orokorreko beste zerbitzu pertsonal batzuekin, zeinek unibertsaltasuneko, elkartasuneko, aurrekontu-eraginkortasuneko eta egokitasuneko printzipioen jakitun egon behar baitute.

Eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman ekimen pribatuaren parte-hartzea egonkortasunez eta egokitasun-printzipioan (kalitatea) oinarrituta antolatzeko bide egoki bat da, 5. artikuluan ezartzen denaren arabera, zeinak definitzen baitu prestazioek, ekipamenduek eta titulartasun publikoko eta pribatu itunduko zerbitzuek integratzen duten erantzukizun publikoko sistema dela, gizarte-ekimenaren (hirugarren sektore soziala) eta, eremu batzuetan, enpresen iraganeko, egungo eta etorkizuneko ekarpenaren kontzientziatik.

**Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak**

## IHOBEK ETA ELANKIDETZA AGENTZIAK KOOPERAZIO-EKINTZAK SUSTATUKO DITUZTE INGURUMENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN ESPARRUETAN GARAPENA LORTZEKO

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (eLankidetza) eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak (Ihobe) batera jarduteko protokolo bat izenpetu dute elkarrekin lankidetza-ekintzak sustatzeko ingurumenaren esparruetan garapena lortzeko, eta azpimarra jarri dute ekintza klimatikoan eta jasangarritasunean.

Protokoloaren xedea zera da: eLankidetza agentziaren eta Ihoberen arteko kolaborazioaren markoa definitzea, bai eta interes komuneko arloak ere, lankidetzaren eta ingurumenaren esparruetan, eta horietako bakoitzerako jarduketa-ildo posibleak identifikatzea ildo horietatik ekimenak, ekintzak, proiektuak eta baterako lankidetza teknikoko programak egin ahal izateko, hegoaldeko herrialdeen populazioen premia teknikoei eta estrategikoei erantzuteko.

Zehazki, pertsona guztiek ingurumen osasuntsu eta seguru bat izateko duten eskubide unibertsala bermatzearen inguruko jarduketak izango dira nagusi, eta, bereziki, klima-aldaketaren, biodibertsitatea kontserbatzearen eta ekosistemak zaintzearen esparruetakoak; horrez gain, jarduketak egingo dira bermatzeko politikak eta jarduketak koherenteak direla garapenerako lankidetzarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin.

Halaber, akordioaren bidez Ihobek ingurumen-plangintzako eta klima-aldaketa murrizteko eta horretara egokitzeko politiken erakunde sustatzaile gisa duen kontrola indartu nahi da, eta giza eskubideen ikuspegia sartu, tokikoa eta globala, eta desparekotasunen aurka borrokatzekoa, nola Euskadin hala hegoaldeko herrialdeetan.

Ihobek eta eLankidetza agentziak uste dute ingurumenaren jasangarritasuna berebiziko elementua dela pertsona guztiei eta planetari bizitza osasuntsurako eta bidezko bizitzarako eskubideak bermatzeko, bai eta tresna bat ere bidezko gizarte baterantz aurrera egiteko eta pobrezia eta desparekotasunak murrizteko. Hori horrela, erakunde biek aitortu dute zeinen garrantzitsua den jasangarritasun soziala eta ingurumenekoa politika publikoetan integratzea, bai eta ekintza zehatzak sustatzea ere giza garapen jasangarria sustatzeko, 2030 Agendarekin eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat.

Akordioak lau urteko iraupena izango du, eta beste lau urte ere luzatu ahal izango da.

**Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak**

## GOBERNU KONTSEILUAK GAZAKO PREMIA HUMANITARIOEI ERANTZUTEKO LAGUNTZA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak urriaren 17an iragarritako 500.000 euroko ekarpena onartu du. Dirulaguntza Lehendakaritzak eta eLankidetza-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emango dute, eta bakoitzak 250.000 euro bideratuko dituzte. Laguntzaren helburua da Ekialde Hurbileko Palestinar Iheslariei Laguntzeko Nazio Batuen Agentziak UNRWAk egindako larrialdi deiari erantzutea, gazako biztanleen beharrizan humanitarioak asetzeko.

Deialdiaren helburua da funtsak lortzea elikagaien, higiene-gaien, sendagaien eta osasun arretaren berehalako beharrak asetzeko, bai eta Agentziak Gazan dituen zentroetan dauden errefuxiatuak edo barne desplazatuak babesteko ere. Nazio Batuen Agentziaren arabera, 690.000 desplazatu inguru bere 149 instalaziotan babesten dira, eta gero eta baldintza zailagoak dituzte. Eskuragarri dagoen laguntza oraindik ere ez da nahiko biztanleriaren oinarrizko premiak asetzeko.

## ELANKIDETZAK EMAKUMEAK ZUZENDUTAKO ENPRESAK SUSTATZEKO PROGRAMA BABESTUKO DU BURKINA FASON

Gobernu Kontseiluak 195.000 euroko zuzeneko dirulaguntza onartu du Oxfam Intermon Fundazioari zuzenduta. Laguntza horiei esker, eLankidetza-Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak sailekoa, enpresa-garapena helburu duen programa aitzindari bat babestuko du Burkina Fason.

Proiektuaren xedea da emakumeak buru dituzten enpresa txikiei laguntzea, batez ere landa-eremukoei, kalitate handiko laguntza teknikoa eta kreditua eskuratu dezaten. Horretarako, ekimena garatu duten herrialdeetako merkataritza-bankuetan berme sistema bat abian jarriko dute.

Ekimenak balioko du eLankidetzak finantza-lankidetzarako tresna bat aztertzeko esperientzia eta eredu gisa har dezan. Helburua da Afrikako herrialdean genero-ikuspegia duten eta inpaktua duten enpresak sortzeko eta modu iraunkorrean hazteko ekosistema egoki baten garapena sustatzea.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK 140.000 EUROREKIN LAGUNDUKO DU SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN DATU BASEA BERRITZEN

Gobernu Kontseiluak gaur onartu duenez, Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 140.000 euroko urte anitzeko dirulaguntza zuzena emango dio Soziolinguistika Klusterra Elkarteari euskararen kale erabileraren datu-basearen aldagai berrietan sakondu eta datu basea hobetzeko. 70.000 euro aurten emango dizkio eta beste 70.000 euro datorren urtean. Proiektuak Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-ekarpena ere jasoko du.

Soziolinguistika Klusterra euskararen ikergune zientifikoa da eta besteak beste, bost urtean behin euskararen kaleko erabilera kuantifikatzen du. Orain arte zortzi edizio egin dira eta Soziolinguistika Klusterrak eskarmentu zientifiko handia lortu du datuak jasotzeko eta behar bezala antolatzeko orduan, bai datu horiek behar bezala irakurtzeko orduan, baita euskararen kale-erabileran eragiten duten bestelako aldagaiak identifikatzeko orduan ere. Datu horiek jaso, ustiatu eta eskaintzeko gaur egun duen datu-basea zaharkituta geratu da eta orain datu-base hori aztertu, gaur egungo beharrei erantzuteko aldagai berriak jorratu eta plataforma berria garatuko da.

# EL GOBIERNO VASCO APOYARÁ LA LABOR DE LAS ASOCIACIONES PROFESIONALES Y EMPRESARIALES DE LOS SECTORES AGRARIO Y ALIMENTARIO DE EUSKADI CON UNA DOTACIÓN DE 350.000 EUROS

- **Se trata del programa de ayudas ELKARTEAK destinadas a financiar estudios y actividades formativas, ferias y gastos derivados del funcionamiento de las asociaciones para el cumplimiento de sus fines**
- **Podrán ser beneficiarias de estas ayudas, las asociaciones profesionales, así como sus federaciones y confederaciones de los sectores agrario y alimentario de Euskadi**

El Gobierno Vasco ha aprobado en su reunión de hoy la orden de la consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, Arantxa Tapia, por la que se convoca para el año 2023 el programa de ayudas ELKARTEAK, destinado a las asociaciones profesionales y empresariales de los sectores agrario y alimentario de Euskadi, por considerarse fundamentales de cara a vertebrar determinados subsectores a través del fomento de sus actividades.

Podrán solicitar estas ayudas las asociaciones y federaciones profesionales y empresariales de los sectores agrario y alimentario que tengan su domicilio social en la Comunidad Autónoma del País Vasco y que, sin finalidad lucrativa, representen los intereses de dichos sectores.

La dotación económica aprobada para esta convocatoria asciende a 350.000 euros distribuidos de la siguiente forma:

– Para el sector alimentario: 100.000 euros.
– Para el sector agrario: 250.000 euros.

Serán subvencionables los gastos derivados del ejercicio de funciones de representación que tengan reconocidas y encomendadas en defensa de los intereses de las personas asociadas; los gastos corrientes de funcionamiento de las entidades asociativas con el fin de estimular el adecuado cumplimiento de sus fines sociales; los gastos relativos a la realización de estudios y actividades de carácter experimental dirigidas al fomento y mejora de las condiciones del ejercicio de la actividad y condiciones socioeconómicas de los sectores agrario y alimentaria; y los gastos dirigidos a la organización de ferias y certámenes.

El plazo de presentación de las solicitudes será de un mes desde que se publique la orden de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

Las entidades solicitantes deberán presentar las solicitudes por canal electrónico. La ficha informativa del procedimiento que recoge las instrucciones para la tramitación de la ayuda, y desde la que se accede a los formularios de solicitud estarán disponibles, una vez publicada la orden, en los siguientes enlaces: Sector alimentario: https://www.euskadi.eus/servicios/1083405 / Sector agrario: https://www.euskadi.eus/servicios/0113510

## Economía y Hacienda

### EL FONDO FINKATUZ ALCANZA LOS 300M€ DE CAPITAL TRAS APROBAR HOY EL GOBIERNO VASCO UNA AMPLIACIÓN DE 40M€

El Fondo Finkatuz, gestionado por el Instituto Vasco de Finanzas (IVF), alcanzará los 300M€ de capital tras la dotación de 40M€ aprobada hoy por el Consejo de Gobierno.

Con esta ampliación del Fondo Finkatuz se cumple el compromiso del Gobierno Vasco de ir aumentando su capital a lo largo de esta legislatura hasta alcanzar los 300M/€ señalados.

Finkatuz tiene como objetivo la participación en el capital de grandes empresas de Euskadi para garantizar que dichas empresas mantengan su arraigo en Euskadi y ejerzan un carácter tractor sobre el conjunto del tejido productivo vasco. Empresas que deben tener un volumen de facturación superior a 100 millones de euros y que ocupen, al menos, a 50 empleados. Está excluida la participación en empresas en crisis.

Entre los sectores estratégicos considerados como preferentes para Finkatuz están: aeronáutica, alimentación, automoción, biociencias, contenidos digitales, ecoindustrias, energía, maquinaria, productos e instalaciones siderúrgicas, tecnologías electrónicas y de la información, transportes, movilidad y logística. Estos sectores no constituyen una enumeración cerrada y podrán ir variando a lo largo del tiempo.

Este fondo, puesto en marcha en 2021, ha tomado hasta la fecha participaciones en tres empresas: ITP Aero, CAF y Kaiku, con una inversión de 104M€.

Para hacer efectiva esta nueva dotación, el Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el día 20 de junio de 2023, autorizó una aportación de 60M€ con destino a incrementar el fondo social del IVF.

## Educación

**EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 2,7 MILLONES DE EUROS PARA PROGRAMAS DE REFUERZO LINGÜÍSTICO**

- **Las ayudas se destinarán a sufragar gastos ligados a la contratación de profesorado de refuerzo lingüístico o a la adquisición de recursos bibliográficos y didácticos para la implementación de los programas**

El Departamento de Educación del Gobierno Vasco destina este curso 2023-2024 un total de 2,7 millones de euros en subvenciones para la ejecución de programas de refuerzo lingüístico en centros de enseñanza concertados. Estos programas están dirigidos al alumnado de reciente incorporación a nuestro sistema educativo que presente dificultades comunicativas importantes relacionadas con el desconocimiento de las lenguas oficiales de Euskadi, y que requiera un plan de refuerzo lingüístico. La nueva convocatoria para el presente curso ha sido aprobada esta mañana en Consejo de Gobierno.

Serán beneficiarias de estas ayudas los centros de enseñanza concertados que impartan Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria o Formación Profesional Básica. El objeto de la convocatoria de ayudas es la de financiar los gastos de ejecución y de personal, derivados de la implantación de los citados programas durante este curso 2023-2024.

Constituyen alumnado de reciente incorporación los alumnos o alumnas que se hayan matriculado por vez primera en el sistema educativo vasco de enseñanza no universitaria desde el 31 de enero de 2022. Será también requisito para la subvención que este alumnado sea mayor de 6 años y cumpla 18 años como máximo a lo largo del curso 2023-2024.

Los centros interesados en recibir estas subvenciones deberán presentar solicitud con la siguiente documentación: descripción del programa de refuerzo lingüístico que implanta el centro, indicando el profesorado especializado que se implicará en él y su porcentaje de dedicación, número de alumnos y alumnas participantes, así como la programación didáctica, incluyendo, entre otros, actividades didácticas y criterios de evaluación.

Estas ayudas económicas se destinarán a sufragar gastos ligados a la contratación de profesorado (profesorado de refuerzo lingüístico), o a la adquisición de recursos bibliográficos y didácticos para la implementación de metodologías innovadoras.

El pasado curso 2022-2023, el Departamento de Educación del Gobierno Vasco subvencionó mediante esta convocatoria programas de esta índole desarrollados en 127 centros concertados, y en los que fueron directamente beneficiados algo más de 2.500 alumnos y alumnas. A su vez, en la red pública, el Departamento de Educación implementó estos programas de refuerzo lingüístico en 328 centros educativos, de los que han sido beneficiarios directos más de 2.500 alumnos y alumnas.

## Educación

### 200.000 EUROS PARA EL PROGRAMA DE MOVILIDAD DEL PERSONAL INVESTIGADOR DOCTOR

El Consejo de Gobierno ha aprobado en el día de hoy, y a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convoca el programa de movilidad del personal investigador doctor.

Con un importe global de 200.000 euros, esta convocatoria concede ayudas para la realización de estancias –con dedicación exclusiva- en centros de investigación, con el fin de impulsar la movilidad geográfica del profesorado universitario y personal investigador de los organismos y centros de I+D+i, mejorando así sus capacidades y la competitividad de los grupos de investigación.

El programa de movilidad de personal investigador se desarrollará en dos modalidades:

- Modalidad A, movilidad de personal investigador senior, destinada a personal permanente y dotada con 150.000 euros.
- Modalidad B, movilidad de personal investigador junior, destinada al personal no permanente y dotada con 50.000 euros.

Serán beneficiarias de estas ayudas las entidades acreditadas como Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. El personal investigador que mantiene una vinculación laboral con esta entidad solicitante de la ayuda será la que realice la estancia en un centro de investigación de fuera de Euskadi. Los centros de destino a los que habitualmente suele trasladarse el personal vasco mediante esta convocatoria suelen estar ubicados en países como Reino Unido, Alemania, Estados Unidos de América, Australia, Canadá, Suecia, Dinamarca o Nueva Zelanda, entre otros. Este personal deberá ser doctor, y con una antigüedad mínima de dos años en la plantilla de la entidad beneficiaria.

Durante su estancia en el centro de destino, el personal investigador deberá desarrollar un proyecto de investigación que se encuentre integrado en la línea de trabajo del equipo receptor u otro tipo de actuaciones tendentes al establecimiento de intercambios y vínculos científicos de alto nivel. Se valorará específicamente la colaboración con universidades y centros de investigación de reconocido prestigio internacional. Esta estancia, de una duración comprendida entre dos y seis meses, se realizará dentro del año 2024.

Un total de 24 investigadoras e investigadores han sido beneficiarios de estas ayudas durante este año 2023, mediante la anterior convocatoria. Han realizado sus estancias en el Reino Unido, Estados Unidos de América, Italia, Alemania, Canadá, España, Nueva Zelanda, Suecia, Países Bajos, Ecuador, Singapur y Sudáfrica.

El programa de movilidad del personal investigador es, dentro de las actuaciones de impulso a la investigación que desarrolla el Departamento de Educación, un mecanismo idóneo para potenciar los contactos de la comunidad científica y tecnológica vasca con investigadores e investigadoras de reconocido prestigio, así como actualizar y perfeccionar los conocimientos científico-técnicos del profesorado universitario.

## Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

### EL GOBIERNO APRUEBA EL DECRETO QUE REGULA EL RÉGIMEN DE CONCIERTO SOCIAL Y LOS CONVENIOS EN EL SISTEMA VASCO DE SERVICIOS SOCIALES

El Consejo de Gobierno, a propuesta de Nerea Melgosa, consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales ha aprobado hoy un nuevo decreto cuyo objeto es regular un régimen general y común para la concertación de los servicios del catálogo de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, que establece el artículo 22 de la ley de Servicios Sociales.

En particular este decreto regulará la concertación de plazas con entidades de iniciativa privada en centros.

Como está previsto en la ley de Servicios Sociales, el régimen de concierto es, junto con la gestión directa, la gestión indirecta en el marco de la normativa de contratación de las administraciones públicas y los convenios con entidades sin ánimo de lucro, una de las fórmulas de que disponen las administraciones públicas para organizar la prestación de los servicios del catálogo del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

La Directiva 2014/24 UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de febrero de 2014, sobre contratación pública y la ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, que la traspone, otorgan libertad a cada Estado miembro, para organizar la prestación de los servicios sociales, y otros servicios personales de interés general, sin celebrar contratos públicos, siempre que se respeten los principios de transparencia y no discriminación.

El régimen de concierto se denomina social por referirse al ámbito de la intervención social: servicios sociales, promoción del acceso al empleo e intervenciones en el espacio sociosanitario, sociolaboral, socioeducativo o socio-judicial, entre otros. Y se articula en base a un procedimiento de convocatoria pública que implica concertar plazas con todas las entidades cuyas solicitudes cumplan los requisitos de acceso. El procedimiento y, en particular, los requisitos de acceso están relacionados con los principios y el modelo comunitario de atención que establece la ley de Servicios Sociales en sus artículos 7, 8 y 9. Y la duración de un concierto puede extenderse hasta 8 años.

Resulta, por tanto, un instrumento coherente con el modelo comunitario y el Marco europeo voluntario de calidad para los servicios sociales y otros servicios personales de interés general que han de estar informados por los principios de universalidad, solidaridad, eficiencia presupuestaria y adecuación.

Y una vía adecuada para articular, de forma estable y en base al principio de adecuación (calidad), la participación de la iniciativa privada en el Sistema Vasco de Servicios Sociales, según lo establecido en su artículo 5, que lo define como un sistema de responsabilidad pública integrado por prestaciones, equipamientos y servicios de titularidad pública y privada concertada, desde la conciencia de la aportación pasada, actual y futura de la iniciativa social (tercer sector social) y también de las empresas en algunos ámbitos.

## Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

### IHOBE Y ELANKIDETZA IMPULSARÁN ACCIONES DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO EN TEMAS DE MEDIO AMBIENTE Y SOSTENIBILIDAD

La Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo-eLankidetza y la Sociedad Pública de Gestión Ambiental del Gobierno Vasco-Ihobe han suscrito un protocolo de actuación conjunta para impulsar acciones conjuntas de cooperación para el desarrollo en las áreas de medio ambiente, con especial hincapié en la acción climática, y sostenibilidad.

Así, el protocolo tiene por objeto definir el marco de colaboración entre eLankidetza e Ihobe y las áreas de interés común en materia de cooperación y medioambiente, identificando para cada una de ellas posibles líneas de actuación sobre las cuales puedan ser llevadas a cabo iniciativas, acciones, proyectos y programas de cooperación técnica conjunta, respondiendo a las necesidades técnicas y estratégicas de las poblaciones de los países del Sur.

En concreto, las actuaciones se centrarán en aquellas que avancen en garantizar el acceso universal de todas las personas a un medio ambiente sano y seguro, en especial en los ámbitos de cambio climático, conservación de la biodiversidad y cuidado de los ecosistemas; así como en asegurar la coherencia de las políticas y actuaciones con los objetivos de la cooperación para el desarrollo y los Objetivos de Desarrollo Sostenible.

Asimismo, el acuerdo también busca reforzar el rol de Ihobe como entidad impulsora de políticas de planificación ambiental y mitigación y adaptación al cambio climático, con una perspectiva de derechos humanos, local-global, y de combate a las desigualdades, tanto en Euskadi como en los países del Sur.

Tanto eLankidetza como Ihobe consideran la sostenibilidad medioambiental un elemento indispensable para garantizar los derechos a una vida sana y justa de todas las personas y del planeta, así como una herramienta para avanzar hacia una sociedad equitativa, y para reducir la pobreza y las desigualdades. De esta forma, ambas entidades reconocen la importancia de integrar la sostenibilidad, tanto social como ambiental, en las políticas públicas y de impulsar acciones concretas para garantizar el desarrollo humano sostenible, en línea con la Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas.

La duración del acuerdo será de cuatro años, prorrogables por un periodo de hasta cuatro años adicionales.

**Igualdad, Justicia y Políticas Sociales**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LA AYUDA PARA RESPONDER A LAS NECESIDADES HUMANITARIAS EN GAZA

El Consejo de Gobierno ha aprobado la aportación anunciada el pasado 17 de octubre de 500.000 euros. La subvención la aportarán Lehendakaritza y eLankidetza-Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo con 250.000 euros, respectivamente, y contribuirá al llamamiento de emergencia de a la Agencia de Naciones Unidas para los refugiados palestinos UNRWA para cubrir necesidades humanitarias de la población gazatí.

El objetivo del llamamiento es conseguir fondos para cubrir necesidades inmediatas de alimentos, artículos de higiene, medicamentos y atención sanitaria, así como de refugio y protección de personas refugiadas en los centros de UNRWA y de personas desplazadas internas.

Según la Agencia de Naciones Unidas, alrededor de 690.000 personas desplazadas se están refugiando en 149 de sus instalaciones, donde las condiciones cada vez son más difíciles. La ayuda disponible sigue siendo insuficiente para cubrir las necesidades básicas de la población afectada.

## ELANKIDETZA APOYARÁ UN PROGRAMA DE PROMOCIÓN DE EMPRESAS DIRIGIDAS POR MUJERES EN BURKINA FASO

El Consejo de Gobierno ha aprobado una subvención directa de 195.000 euros a la Fundación Oxfam Intermon. Gracias a esa ayuda, eLankidetza-Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, apoyará un programa pionero de desarrollo empresarial en Burkina Faso.

Se trata de un proyecto cuyo objetivo es ayudar a pequeñas empresas dirigidas por mujeres, especialmente en áreas rurales, en el acceso a asistencia técnica y al crédito de alta calidad. Para ello, realizarán un sistema de garantías en los bancos comerciales de los países que han desarrollado la iniciativa.

El proyecto es una experiencia piloto que eLankidetza tomará como experiencia y modelo para el estudio de un instrumento de cooperación financiera. Su objetivo es promover el desarrollo de un ecosistema favorable para el surgimiento y crecimiento sostenible de empresas con impacto y con enfoque de género en el país africano.

## Cultura y Política Lingüística

**EL GOBIERNO VASCO COLABORARÁ CON 140.000 EUROS EN LA RENOVACIÓN DE LA BASE DE DATOS DEL CLUSTER DE SOCIOLINGÜÍSTICA**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy que el departamento de Cultura y Política Lingüística concederá una subvención directa plurianual de 140.000 euros a Soziolinguistika Klusterra Elkartea para profundizar en las nuevas variables y mejorar la base de datos sobre el uso del euskera en la calle. En total se le concederá una subvención de 70.000 euros este año y otros 70.000 el próximo. El proyecto también recibirá la aportación económica de las diputaciones forales de Bizkaia y Gipuzkoa.

El Cluster de Sociolingüística es el centro científico del euskera y, entre otras cosas, cuantifica cada cinco años el uso del euskera en la calle. Hasta el momento se han realizado ocho ediciones y el Cluster de Sociolingüística ha adquirido una amplia experiencia científica en la recogida y correcta organización de datos, en la correcta lectura de los mismos, así como en la identificación de otras variables que inciden en el uso del euskera. La actual base de datos para la recogida, explotación y oferta de estos datos ha quedado obsoleta y ahora se analizará dicha base de datos, se abordarán nuevas variables para dar respuesta a las necesidades actuales y se desarrollará una nueva plataforma.